


• MATTIN •



Parekotasunaren bideak

• MARGARITA URIA •

[EAJKO PARLAMENTARIOA MADRILGO KONGRESUAN]

Zalaparta handia sortu du Frantziako Asanblea Nazionalak hauteskunde-zerrendetan egon behar duten gizon zein emakumeen kopuruaz berriki onartutako lege-proiektuak. Izan ere, haien arteko parekotasuna ezarri du, baina komeni da zenbait zehaztapen egitea. Lehendabizikoa da onartutakoa oraindik ez dela lege, Asanbleatik Senatura eraman behar dutelako, eta hor gehiengo kontserbadorea dagoelako. Bigarrena da parekotasuna ez dela nahitaez bete beharrekoa; aitzitik, baldintza bat baino ez da diru laguntza publikoak lortzeko. Parekotasunak laguntzak jasotzea ahalbidetzen du, baina baliteke zerrenda batzuetan gizonak emakumeak baino gehiago izatea, eta alderantziz, eta zerrendak, hala ere, legekoak izango dira. Are gehiago, guztiak gizon izan daitezke, edo emakume, eta, ondorioz, diru publikoak jasotzeko eskubidea murriztu egin daiteke, edo desagertu.

Emakumezko politikaria naizen aldetik, hasiera batean gustatu egiten zait. Goizean goiz irratian entzun nuenean, lehen erreakzioa, barrenbarrenekoa, benetakoa, «zer ondo!» izan zen. Baina gero, dauden arazak entzun ostean, *arrazionalizatzen* hasten zara, eta neurria gizarte-esparruan zein zuzenbide alorrean kokatzen. Frantzia, hainbat gauzatan iraultzaile eta askatasun, berdintasun eta anaitasun printzipio errepublikanoen sorleku izanagatik, ez da eredugarria bigarren balio hori lortzeaz den bezainbatean. Asanblean %11 soilik dira emakume, eta, beraz, desberdintasuna —organo legegiletan— Europako beste edozein herritan baino handiagoa da, Grezian izan ezik, eta munduko batez beste-kotik behera dago. Agian, historian beste batzuetan gertatu legez, mota

bereko beste iraultza bat beharko litzateke.

Arlo juridikoan, Espainiako sistemari dagokionez, jende asko agertu da neurriaren aurka, eta haien lehendabiziko argudioa neurriaren in-konstituzionaltasuna izan da. Are gehiago, batzuk oraindik ausartagoak dira, eta Frantziako Konstituzioaren aurkakoa dela diote, Arenas jaunak esate baterako. Ez dakit zein diren gizon horren bertuteak jurista bikaina izateko, baina esan duena beste *boutade* bat iruditzen zait, Frantziako Konstituzioa berriki aldatu baitute.

Konstituzioko 23.2 artikuluko kargu eta funtzio publikoak bete ahal izateko berdintasuna ezartzen du, betiere legeetan adierazitako baldintzekin, eta artikuluko horren gaineko erreferentzia 14. artikulurekin bateratu behar da, Legearen aurreko berdintasuna eta maila edo gorabehera pertsonalengatik ez diskriminatzea ezartzen baititu —Amsterdamgo Ituna esplizituagoa da sexuari dagokionez—, hala nola 9.2. artikulurekin, honako hau baitio: «... botere publikoek dagokie gizabakoaren askatasuna eta berdintasuna... egiazkoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzea». Horretatik uste dut ondoriozta daitekeela badagoela nahiko oinarri esateko posible dela konstituzionaltasuna, zantzen arabera bada ere.

Neurriaren egokitasuna da beste alderdi interesgarri bat. Lehenago inork ez zion horrela heldu parekotasunari. Alderdi batzuetan kuotak izan dituzte, eta beste batzuetan *zuzentasun politikoa* hartu dute irizpidez, emakumeek prestakuntza eta gaitasun bera dutelako ustezko konbentzimenduan oinarrituta; baina, orain arte, parekotasuna lortzeko nahia lege-eskakizunetatik kan-

po gelditu da. Europako iparraldeko herrietan ikusten diren emaitza onak berak ere alderdian kuotak nahita ezartzearen ondorio dira. Orain arte, parekotasuna ez da inongo legeditan exijitu, baina gomendioak izan dira, Parlamentuen arteko Batasunarenak adibidez. Erakunde hori 1889an sortu zen, munduko parlamentu guztiak biltzen ditu, eta 1997an honako adierazpen unibertsal hau onartu zuen: «Ez da demokraziarik izango ez badago benetako lankidetzarik arazo publikoetan gizon eta emakumeen artean, eta gizonak eta emakumeek, berdintasunean eta elkarren osagarritasunean oinarrituta, ez badute elkar aberasten beren desberdintasunekin». Bide batez esanda, Parlamentuen arteko Batasunak, lehendabiziko aldiz, emakumezko bat aukeratu berri du lehendakari, eta horretarako 110 urte soilik behar izan ditu!

Asmo bera izan dute duela gutxi EAJren Estatutu Nazionalak aldatu dituztenean. Aldaketa xumea izan da, baina sinbolikoa. Izan ere, 109.2. artikuluan, alderdi barneko zein kanpoko karguez honako hau esaten da: «... gizonen eta emakumeen ordezkariak egokia ziurtatuko da, aukera berdintasunean oinarrituta»; honako hau ere bai: «... batzarrek erabaki ahal izango dute zein proportziotan esku hartuko duten emakumeek, edo mekanismoak jarri ahal izango dituzte haien esku-hartzea sustatu eta bermatzeko». Esango dinate beste alderdi batzuk *aurreratua* goak direla, baina nire alderdiarentzat berritasun garrantzitsua da.

Ikusitakoak ikusita, hasieran bezala orain ere honako hau esaten dut: «Bai urrats ona, Frantzian egindakoa!».

*Erredakzioan itzulita

... MARIBI UNAMUNO

Erbestean



Iraganean gertatu zen kontutuko dizuedan ipuin ez fantastiko hau.

Igande goiz baten, Bremengo ipuinetako musikari famatuari dedikaturiko estatuaren inguruan, zeregin handi bariarik, euri ziri miriaren barnean, bakar antzean zebilen bisitariak, katedralaren dorretik zertorren kanpai hotsa entzun zuen eta,

hain hots ederrez deitzen zuten bada ezen, deia erantzutea bururatu zitzaion.

Pentsatu bezala egin zuen eta han aurkitu zuen katedral handia, argiz beterik, jendez ganezka. Solemnitate handiz altararatu ziren euren jantzi bereziekin hainbat gizon eta hasi zen meza. Bisitaria azken aurreko mankelaren ertzean geratu zen, besteekiko mimitismoz, haiek jagiten zirenean jagi eta jesarten zirenean jesarritz, unearen magiaz gozaten. Halako baten altarako nagusiak, adiskidetasunaren seinale edo, elkarri eskua emateko agindu zuen eta denek bete zuten agindu hori; denek bisitariaren ondoan zegoen mutil buru gorri, azal argi, begi urdin, altuak izan ezik; honek bere eskumako kideari eman zion eskua baina ez bere ezkerrean zegoen bisitariari. Lehenengo unean, bisitariak harridura aurpegira begiratu zion zuzen-zuzen mutilari eta baiezta ahal izan zuen honek ezizuki egiten ziola, orduan bisitariak bere esku biak batu zituen, bere buruari bakea emateko.

Han gertatutakoaz pentsatu eta pentsatu egin ondoren, konturatu zen berari eskua ukatzearen arrazoia buruko ilearen kolorea izan zitekeela; ile iluna zen erbestekotasunaren seinale. Amorrua biztu zitzaion bisitariari, bizitzan estreineko aurretik inoiz sentitu bakoia sentitu baitzuen, hau da, norbaitek beste norbait gehiagoko barik mesprezatzea zer zen. Amorrurik handiena, hala ere, gazte haren uzkurkeriak unearen magia zeharo apurtu beharrak eman zion.

Ipuin hau hainbeste urtean gordeta egon arren, ez da ahaztuta egon, zerne El Ejido herrian baldintza txarretan lanean diharduten erbestearren gertakari berri izatean, berbiztu egin da memorian grabatuta egon dena. Norbere etxe ondolik harat, denok izan gaitzke erbestear.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Sentiduak

■ Kornerra idatzita neukan, goizetik lasai ibilita, gai faltarik ez neukalako. Gasteizko bonbak, ordea, lasaitasun oro astindu dit. Idatzita neukana ez du ezabatu, neuk ezabatu dudalako. Sentidua bazeukan, badu, baina garrantzia erabat galdu du. Zailagoa zait Gasteizko atentatuari sentidurik aurkitzea, eta ez naiz ari inongo heriotzak sentidurik ez daukan alfer-etzabaidaz. Fernando Buesa ordezkari politikoa hil izanak eite berezia ematen dio atentatuari: ene irudiko, zuzenago hedatzen du leherketa-uhina negoziazio (edo dena delako) prozesurantz. Hilketak berarekin daroan min eta tragediaz gain, hori ikusten dut; sentidua hor lanbroitzen zait. Pique ministroaren mehatxuez zen ezabatutako kornerra. Daniel Dergi ere aipuen. Errespetatzen ez den euskal herritarren borondateaz niharduen. Atentatua ere sartzen da.